



Osakidetza  
Servicio vasco de salud

GASTEIZKO ERIZAINZAKO UNIBERTSITATE-ESKOLA  
ESCUELA UNIVERSITARIA DE ENFERMERIA DE VITORIA-GASTEIZ



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# **Arnasketa arazoen ondoriozko antsietatearen eta depresioaren maneia, BGBK pairatzen duten gaixoengan: metodo ez farmakologikoen eraginkortasuna.**

Literatura zientifikoaren azterketa kritikoa.

Gradu Amaierako Lana 2020-2021.

LEIRE AGIRRETXE SANCHEZ

Tutorea: Yolanda Lopez de Audicana

Hitz kopurua: 5963

2021/04/2

## AURKIBIDEA

<b>SARRERA</b> .....	3
<b>SIGLEN GLOSARIOA</b> .....	4
<b>ESPARRU KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA</b> .....	5
<b>HELBURUA</b> .....	9
<b>METODOLOGIA</b> .....	10
<b>EMAITZAK ETA EZTABAIDA</b> .....	13
Errehabilitazioa pulmonarra .....	14
Psikoterapia.....	17
Erlaxazio teknikak.....	18
<b>ONDORIOAK</b> .....	21
<b>MUGAK/OZTOPOAK</b> .....	23
<b>BIBLIOGRAFIA</b> .....	25
<b>ERANSKINAK</b> .....	28
1. Eranskina. Kontzeptuen taula.....	28
2. Eranskina. Bilaketa prosezua. ....	30
3. Eranskina. Irakurketa kritiko gidoia.....	47
4. Eranskina. Fluxu diagrama .....	53
5. Eranskina. Laburpen taula .....	54
6. Eranskina. Katategoria-zuhaitza. ....	63
7. Eranskina. Antsietatea eta depresioa ebaluatzen dituzten eskalak. ....	64

## SARRERA

**Esparru kontzeptuala eta justifikazioa:** BGBK gaixotasun konplexu eta heterogeneoa da. Gaixotasun honen sintoma nagusiak disnea, eztula eta espektoria dira. Alderdi psikologikoari begira, antsietate eta depresioa disnearekin lotzen da. BGBK pairatzen duten pertsonen %19k antsietatea dute, %9'8k depresioa eta %7'3k bi sintoma hauen nahasmendu mistoa. Antsietateak eta depresioak, lotura zuzena dute biriketako gaixotasun espezifikoak dituzten BGBKko pazienteekin. Hori dela eta, beharrezkoa izan daiteke sintoma hauek arintzen dituzten metodo ez farmakologikoak erabiltzea, -hala nola, errehabilitazioa pulmonarra, psikoterapia eta teknika erlaxagarriak- eta tratamendu horien eraginkortasuna egiaztatzea.

**Helburua:** Tratamendu ez farmakologikoen eraginkortasuna aztertzea egunerokotasunean BGBKren ondorioz pairatzen duten antsietate eta depresioan.

**Metodología:** Proposatutako helburuari erantzuna emateko literatura zientifikoaren azterketa kritikoa egin da, errebisio bibliografikoa lortuz. Bilaketa ugari egin dira hainbat datu baseetan: Medline(Ovid), Cinhal, Cuiden, Embase eta Pumbed. Horretarako, bilaketa ekuazioak sortu dira, batetik, hitz gakoak erabilia ("antsietatea", "depresioa", "metodo ez farmakologikoak", "BGBK"), eta bestetik, aldagai boleanoak erabilia (AND/OR). Horrez gain, ebidentzian oinarritutako erakundeetan (Cochrane liburutegian eta RNAO) bilatu da eta eskuzko bilaketak egin dira (EHU liburutegian, Science Direct, Respiratory Medicine aldizkarian). Azkenik, 17 artikulua bildu dira emaitzak idazteko: horietatik 14 entsegu klinikoak dira; beste 1, atzera begirako ikerketa, eta beste 2, errebisio sistematikoak eta meta-analisiak.

**Emaitzak:** Lan honetan, hiru metodo ez farmakologikoak sailkatu dira (Errehabilitazio pulmonarra, Psikoterapia eta Erlaxazio teknikak), eta beraien eraginkortasuna neurtzeko eskalak erabili dira. Hiru terapietatik ikertuena errehabilitazio pulmonarra izan da, antza denez antsietate eta depresioarekin eragin zuzena duena. Bestetik, psikoterapia lantzen zuten ikerketen arabera, hainbat esanguratsuak dira, nahiz eta batzuetan depresioan sortutako aldaketak nabariegia ez izan. Azkenik, erlaxazio teknikei dagokienez, badirudi ez dagoela ebidentzia nahikorik antsietate eta depresio sintomak murrizten dituztela esateko.

**Ondorioak:** Funtsezkoa da BGBK dela eta pazienteek pairatzen dituzten antsietate eta depresio sintomak ikertzea, izan ere, bi sintoma horiek euren bizi kalitatea baldintzatu dezakete. Sintomak arintzeko metodarik eraginkorrena eta gehien ikertu dena ere errehabilitazio pulmonarra da. Askotan, metodo hori tratamenduaren oinarria izanda, beste bi metodo ez farmakologikoak ere txertatu dira. Zentzu honetan, gaiaren garrantzia eta pazienteentzako onurak aintzat hartuta, ikerketa gehiago behar dela esan daiteke.

**Hitz gakoak:** Biriketako Gaixotasun Buxatzaile Kronikoa, Antsietatea, Depresioa, Metodo ez farmakologikoak (Errehabilitazio pulmonarra, Psikoterapia, Erlaxazio teknikak).

## SIGLEN GLOSARIOA

- BGBK: Biriketako Gaixotasun Buxatzaile Kronikoa.
- COPD: Chronic obstructive pulmonary disease.
- Eskalak:
  - Antsieta eta depresioa ebaluatzen dituztenak:
    - AIR: Anxiety Inventory for Respiratory Disease.
    - BAI: Beck Anxiety Inventory.
    - BDI: Beck Depression Inventory.
    - DASS-21: Depression Anxiety Stress Scales-21 .
    - HADS: Hospital Anxiety-Depression.
      - HADS-A: Hospital Anxiety-Depression Scale Depression Score.
      - HADS-D: Hospital Anxiety-Depression Scale Anxiety Score.
    - PHQ-9: Patient health Questionnaire.
    - SCL-90: Anxiety subscale of the Symptom Checklist-90.
    - STAI-Y1: State Trait Anxiety Inventory-State Form.
    - STAI-Y2: State Trait Anxiety Inventory-Trait Form.
  - Bestelakoak:
    - CAT: Chronic obstructive pulmonary disease assessment test.
    - CRQ: Chronic Respiratory Disease Questionnaire.
    - ESWT: Endurance shuttle walking test.
    - FEV1: Forced expiratory volumen in the first second.
    - IBPQ: Interpretation if Breathing Problems Questionnaire.
    - ISWT: Incremental shuttle walk test.
    - mMRC: Modified Medical Research Council.
    - 6MWD: Six minute walking distance.
    - 6MWT: 6-min walk test.
    - SGRQ: St George´s respiratory questionnaire.
    - SMD: Standardized mean difference.
    - VAS: Visual Analogue Scale.
- Interbentzioak:
  - CBT: Cognitive behavioural therapy.
  - MBBT: Mindfulness-based breathing therapy.
  - MBCT: Mindfulness-based cognitive therapy.
  - MPI: Minimal Psychological Intervention.
  - PRP: Pulmonary rehabilitation programe.
  - PRT: Progressive relaxation technique.
  - TCC: Terapia kognitibo konduktuala.
  - VIT: Visual imagery technique.

## ESPARRU KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA

BGBK (Biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa), gaixotasun konplexu eta heterogeneoa da (1). OMS - Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, BGBK, gaixotasun baten izen soila izatetik harago, biriketako airearen fluxua mugatzen duten biriketako gaitz kroniko desberdinak izendatzen dituen kontzeptu orokorra da (2).

Sintomatologiari dagokionez, esan behar da sintoma nagusiak disnea, eztula eta espektorazioa direla (3). Horrez gain, pazienteek arnasbideen buxada progresiboa eta itzulezina jasaten dute (4); beraz, BGBK tratamenduaren helburu orokorrak gaixotasunaren sintoma kronikoak arintzean datza. Hori dela eta, ezinbestekoa da epe laburreko onurak lortzea (gaixotasuna kontrolatzea), bai eta epe ertaineko zein luzeko onurak lortzea ere, hau da, arriskua murriztea. (5).

2001ean, BGBK munduko bostgarren heriotza-kausa nagusia zen; 2015ean, berriz, hirugarrena. Urte horretan, heriotza-tasa globalen artean eta bi sexuak kontuan hartuta, gutxi gorabehera 3,2 milioi heriotza eragin zituen. BGBKren sintomak iraunkorrak dira, eta erikortasun eta heriotza-tasa handia du (4). OMSek iragarri du BGBKa 2030erako mundu osoko laugarren heriotza-kausa bihurtuko dela, eta munduko heriotzen %7,8 eragingo dituela (6). Aipatzekoa da, BGBK duten gizonezkoen kasuan heriotza-tasaren beheranzko joera antzeman dela. Emakumezkoen kasuan, aldiz, handitzen ari da, ziurrenik erretzeko ohituretan emandako aldaketengatik (2)

Prebalentziari dagokionez, Europan zein Espainian %10 ingurukoa da. Hori dela eta, osasun publikorako arazo larria bilakatu da, izan ere, BGBKa bizi kalitate eskasarekin eta osasun sistemako errekurtsoen erabilera handiago batekin erlazionatzen da. Gainera, BGBK duten gaixoen gainerako populazio orokorra baino komorbilitate maiztasun handiagoa dute. BGBKren ohiko komorbilitateak honako hauek dira: Gaixotasun kardiobaskularrak, bihotz gutxiegitasuna, fibrilazio aurikularra, narriadura kognitiboa, antsietatea eta depresioa, osteoporosia eta biriketako minbizia (5,7). Horrenbestez, gaixotasun honek pazienteengan eragiten dituen gaitzez aparte, osasun sisteman eragin negatiboa dauka (2).

Aipatutako sintoma nagusien artean, disnea da BGBK duten pazienteek maizago sufritzen duten sintoma. Disnea, berez, sentsazio anitz biltzen dituen arnasestuka edo arnasa hartzeko zailtasun sentsazio subjektibo da. Pazienteentzat nekagarri bezain estresagarria izan daiteke (4). Gainera, oso aintzat hartu behar dira pazienteek disnea sintomari ematen dioten interpretazioa, eta hori dela kausa erakusten dituzten erantzun fisiko zein psikologikoak. Interpretazio horren arabera, disnea bezain nabarmen diren beste hainbat bitartekari gogoan eduki behar dira, besteak beste, antsietatea, depresioa, auto-eraginkortasunaren pertzepzioa, gaixotasunari aurre egiteko moldaketa, estrategien erabilera eta sinesmenak (3).

Izan ere, antsietatearen (izu erasoak barne) eta disnearen arteko lotura ondo finkatuta dago literaturan, eta pentsa daiteke disnea kronikoan gertatzen diren aldakuntzen %90 aldaketa psikologikoen ondorio direla. Era berean, disnea dela eta, arnas gaixotasun kronikoak dituzten pazienteek antsietate edo depresio sintoma gehiago edo gutxiago izaten dituzte, bizi duten egoeraren arabera (egonkorra, aurreratua edo ospitaleratu). Literatura zientifikoaren arabera, antsietateak eta aldarte aldaketek eragin zuzena dute gaixotasun kronikoen kudeaketan. Bestalde, BGBKren aurkako tratamendu farmakologiko batzuen (beta agonistak), antsietate sintomak areagotu ditzakete bigarren mailako efektu moduan (4,8).

Antzaenez, BGBK zenbat eta larriagoa izan, depresioaren prebalentzia are handiagoa izango da. Izan ere, BGBK arina duten pazienteen kasuan %20koa da, ospitaleratutako pazienteen kasuan, berriz, %44koa, eta arnas porrot hiperkapnikoko pazienteenean, %90koa. Antsietate orokorraren presentzia %6 eta %33 artekoa da (2). Zehazki, BGBK pairatzen dutenen %19k antsietatea sufritzen dute, %9,8k depresioa, eta %7,3k bi sintoma hauen nahasmendu mistoa (9).

Bi patologia bizi kalitatea okerragotzearekin lotzen dira, eta norbanakoaren egoera funtzionala hondatzea eta hilkortasuna areagotzea eragin ditzakete, batez ere depresioaren kasuan (2). Hala ere, antsietatea eta depresioa BGBKan gutxi diagnostikatuta dago, nahiz eta bere prebalentzia populazioaren osotasunean handiagoa izan (8).

Azken urte hauetan, ordea, badirudi gero eta gehiagotan iradokitzen dela, antsietateak eta depresioak paziente horien erikortasunean eragin negatiboa izan lezaketela. Beraz, modu desegoki batean tratatu ezean, pazientearen gaixotasuna zeharo okerragotzeko arriskua dago. Antsietate eta depresio maila altuak biriketako sintoma zehatz batzuekin lotuta daude. Gainera, nekea eta arnasketa zailtasunekin zerikusi zuzena dauka gaixotasun honek. Horrenbestez, garrantzitsua da gaixo mota honetan, antsietatea eta depresioa egokiro eta ahalik eta lasterren diagnostikatzea (10).

Illo horretan, ez dago zalantzarik antsietatearen zein depresioaren larriagotzeak harreman zuzena duela arnasketa zailtasunekin, zenbait ikerketek baieztatzen duten moduan (7). Hortaz, nabarmendu beharra dago, BGBKri dagokion tratamendu farmakologikoaz aparte, maneiatu behar diren beste aldagai batzuk aurki ditzakegula, hain zuzen ere, depresioa eta antsietatea. Ondorioa agerikoa da: ezinbestekoa da sintoma hauek arintzen dituzten tratamenduak erabiltzea, eta pazienteen egoera klinikoan nahiz psikologikoan dituzten onurak egiaztatzea (8). Metodo ez farmakologiko horien artean, honako hauek dira ohikoenak: Errehabilitazio pulmonarra, psikoterapia eta erlaxazio teknikak (11,12).

**PRP (Pulmonary rehabilitation programe)** osoaren osagaiek eragin zuzena eta positiboa dute gaixoarengan, fisikoki zein psikologikoki. Onurak esanguratsuak dira: gaixoa bere gaixotasunarekiko proaktiboago bihurtzen da; bizimodu osasuntsuko jokabideak lortzen ditu, eta

hilkortasun arriskua murrizten da. PRP BGBK pairatzen duten pazienteen interbentzio integralaren oinarria da, beste terapia egokituekin batera. Azpimarratzekoa da aipatutako tratamendu ez farmakologikoen barnean, PRPa dela ezagunena eta erabiliena (13,14).

PRP desberdinak egon daitezke, nahiz eta guztiek helburu nagusi bera izan. Edozelan ere, programa guztiek 8-12 aste inguruko iraupena dute, eta bakoitzak entrenamendu mota bat biltzen du. Gehienek ariketa aerobikoak lantzen dituzte, bakarka zein taldeka egin daitezkeenak: ibilaldiak, txirrindula, korrika, beroketa, igeriketa eta abar. Beste programa batzuek indartze eta erresistentzia ariketak uztartzen dituzte. Azkenik, badira entrenamenduez gain beste era bateko jarduerak ere eskaintzen dituztenak, hitzaldi hezigarri eta informatiboak edota arnasketa eta erlaxazio ariketak adibidez (15).

Bestalde, psikoterapia dugu. **Psikoterapia** eredu honen arabera, pentsamendu desegokiak edo okerrak, pentsamendu desadaptatiboak eta emozio "negatiboak" eragiten dituztela dio (16).

Tratamenduak norbanakoaren pentsamenduak (eredu kognitiboak) aldatu nahi ditu, era horretara portaera eta egoera emozionalak aldatzeko. Psikoterapia saioen bidez zera lortu nahi da: antsietatea eta depresio sintomak elikatzen dituzten pentsamendu eredu distortsionatuak edo distortsio kognitiboak antzematea. Pentsamendu horiek aldatzeari berregituraketa kognitiboa deritza. Terapia hau gaixoei irtenbide alternatiboak aurkitzean eta aurre egiteko modu eraginkorragoak sustatzen laguntzean datza (14).

Tratamendu honen barruan, TCC (Terapia kognitibo konduktuala) eta autogestioa bezalako teknikak lantzen dira, pentsamenduak, emozioak, sentsazioak eta abarrekoak gidatzen eta kontrolatzen ikasteko helburuaz. Teknika horiei esker gainera, psikohezkuntza eskaini daiteke eta estresa landu, arnasketan, antsietatean eta depresioan (17).

**Erlaxazio terapiaren** xedea aldaketa psikologikoa sustatzea da, antsietatearekin eta depresioarekin batera datozen aldaketa fisiologikoak modu eraginkorrean kudeatuz. Hau da, nerbio sistema "sinpatikoa" erregulatzen dute eta zenbait eskualdetako estimulazioak kudeatzen dituzte (13).

Erlaxazio teknikak, antsietatea eta depresioa galarazten saiatzen diren arren, pazienteak bere buruaz duen pertzepzioa areagotzen dute, emozioak modulatzeko dituztelako. Teknika hauen bidez, subjektuak hautematen duen ongizatea sustatu nahi da (13).

Erlaxazio terapiak hainbat teknika biltzen ditu, besteren artean arnasketa ariketak, muskuluen erlaxazio sekuentzia, irudi gidatua, MBBT (Mindfulness-based breathing therapy), MCBT (Mindfulness-based cognitive therapy), distrakzio terapia, hipnosia, meditazioa / arreta eta jarrera fisikoa. Askotan, teknika horietako batzuk biriketako errehabilitazioaren osagai dira edo beste

terapia batzuen osagarri gisa erabiltzen dira. Hori dela eta, elkarren osagarriak direla esan liteke. (12).

Teknika ez farmakologiko hauei dagokienez, oso kontuan hartu behara dago, banaka egin beharrean, taldeka landu daitezkeela; saioak emateko beste aukera bat izanda. Faktore "terapeutiko" izeneko printzipio terapeutikoen artean, emozioen estutasuna arintzeko esperientzia agertzen da, emozioak eta sentimenduak askatasunez eta era desinhibitu batez adierazi daitezkeelako. Modu honetan, taldekideek esperientziak partekatzen dituzte, sentimenduak eta trebetasun sozialak garatzen dituzten bitartean (16).

Lehen Mailako Arretako erizainek BGBK egunerokotasunean duten pazienteak tratatzen dituzte, izan ere, euren dagokie BGBKa prebenitzea, sintomak baloratzea, beharrak aztertzea eta neurriko zainketa plana sortzea (18). Hori dela eta, NANDA diagnostikoen arabera, saio guzti hauen orientatzaile eta gidaria erizain generalista bat izan daiteke. Bestela esanda, erizainek biriketako errehabilitazioa, erlaxazio teknikak nahiz psikoterapia saioak emateko behar beste ezaguera dituzte (19).

Bestalde, BGBK duten pazienteen kasuan, erizainaren esku hartzea funtsezkoa da. Izan ere, zainketa integrala eskaini nahi bazaie, gaixotasunaren alde fisiologikoan zentratzeaz aparte, gaixotasunak berak eragin ditzakeen alderdi psikologikoak ere oso aintzat hartu behar dira, kasu honetan, antsietatea eta depresioa. Eragin psikologiko hauek gaixotasuna okerragotzearekin lotzen dira. Horregatik, aipatutako tratamendu ez farmakologikoen bidez, pazienteen gaitz psikologikoetan duen ondorioa zehazki jakitea aurrerapausoa izan litzake (20).



## **HELBURUA**

Tratamendu ez farmakologikoen eraginkortasuna aztertzea egunerokotasunean BGBKren ondorioz pairatzen duten antsietate eta depresioan.

## METODOLOGIA

### Testu mota eta bilaketa estrategia

Gradu Amaierako Lan honetan, proposatutako helburuari erantzuna emateko literatura zientifikoaren azterketa kritikoa egingo da, errebisio bibliografiko baten itxura lortuz.

Lanaren ikerketari hasiera emateko, helburua kontutan izanik hitz gako batzuk aukeratu dira. Kontzeptu nagusiak honako hauek dira: “antsietatea”, “depresioa”, “método ez farmakologikoak” eta “BGBK”.

Jarraian, hitz gako guzti hauen sinonimoak aztertu dira lengoaia naturalean, bai euskaraz eta bai ingelesez ere. Hitz gakoak guztiz finkatu ahal izateko, lengoaia kontrolatura pasa dira, datu base bakoitzeko deskriptoreak lortuz. Lehenik eta behin, “antsietatea” eta “depresioa” definitzeko datu base guztietan deskriptore berdina agertu da, “anxiety” eta “depression” bezala. Bestetik, esan beharra dago “BGBK” definitzeko hainbat hitz gako desberdin agertu direla: “Pulmonary Disease, Chronic Obstructive, “Lung Diseases, Obstructive” eta “Chronic lung disease”. Azkenik, “Metodo ez farmakologikoak” definitzeko, “non pharmacological” edo “non pharmacological interventions” deskriptoreak agertu dira. Kontzeptu guzti hauen sailkapena taulan adierazita dago. (1. Eranskina)

Ondoren, hitz gakoak aplikatu egin dira aldagai boleanoak erabilia (AND/OR), modu horretan bilaketa ekuazioak sortuz. Geroago, ekuazioak datu baseetan sartu dira bilaketa desberdinak egiteko eta artikulua eskuratzeko. Hasiera batean lortutako artikuluek ez zioten helburuari erantzuten; horregatik, “metodo ez farmakologikoak” erabili beharrean, eurek banatu ondoren eta gehien agertzen diren metodo ez farmakologikoak hartuta, banakako bilaketak egitea erabaki da. Hori dela eta, “biriketako errehabilitazioa”, “psikoterapia” eta “erlaxazio teknikak” erabili dira, bilaketak zehatzagoak izateko eta lortutako artikulua helburuari erantzuteko asmoz ere. Aipatzekoa da, metodo ez farmakologikoen artean, erlaxazio tekniken inguruko informazio nahiko eskasa dagoela; horregatik, “erlaxazio teknikak” hitz gakoarekin batera “mindfulness” ere erabili da. Bestetik, “antsietatea” eta “depresioa” artean “AND” aldagai bolearra erabili da; hala ere ondoren egiaztatu da “OR” erabilia, batzuetan bilaketak eraginkorragoak eta zabalagoak zirela. Bilaketa ekuazio hauek taulan aurki daitezke. (2. Eranskina)

Lanaren emaitzak lortzeko ikertu diren artikulua guztiak datu base fidagarrietatik eskuratu dira. Datu baseak ondoko hauek izan dira: Medline(Ovid), Cinhal, Cuiden, Embase edo Pumbed. Bestalde, ebidentzian oinarritutako erakundeetan bilatu da, hala nola Cochrane Liburutegian eta RNAO. Azkenik, eskuzko bilaketa ere egin da, EHU liburutegian eta Science Direct aldizkari elektronikoaren bidez Respiratory Medicine aldizkarian.

Lana aurrera eramateko, hurrengo irizpideak kontutan hartu dira.

**Barneratze irizpideak:**

- Argitalpen data: Lan honetarako baliogarritzat hartu diren artikulak 2010 urtetik aurrera argitaratutakoak izan dira. Modu honetan, informazioa eguneratuta egon dadin.
- Argitalpen mota: Artikulu guztiak helburuari erantzuten dioten diseinuak izan behar dira. Horien artean meta-analisiak, errebiso biblioigrafikoak eta sistematikoak eta interbentzio artikulak.
- Hizkuntza: Lan honetan ingelesezko zein gaztelarazko dauden testuak erabili dira.
- Kokalekua: Mundu osoko testuak hartu dira kontutan.
- Populazioa: BGBK duten eta eguneroko bizitzan antsietatea eta depresio pairatzen duten pazienteei zuzenduta dago lan hau. Pazienteen adin tartea 55-75 urte bitartekoa da.
- Interbentzioa: Metodo ez farmakologikoak aztertzen dituzten artikulak (errehabilitazio pulmonarra, psikoterapia eta erlaxazio teknikak).

**Kanporatze irizpideak:**

- Argitalpen data: Lan honetarako baliogarritzat hartu ez diren artikulak 2010 urtetik behera argitaratutakoak izan dira.
- Argitalpen mota: Literatura grisa, iritzi artikulak, tesiak, aktak, konferentziak eta abar. Horiek guztiak baztertuak izan dira fidagarritasun faltagatik.
- Hizkuntza: Ingelesez edo gastelaniaz ez dauden artikulak edo itzuliak ez daudenak.
- Kokalekua: Mundu osoko testuak hartu dira kontutan. Arlo honetan ez dago kanpo irizpiderik.
- Populazioa: Egunerokotasunean BGBK ez pairatzea eta antsietatea eta depresioa ez edukitzea. Honekin batera, BGBK momentu akutuan pairatzen duten gaixoeak eta ospitalizatuta daudenak baztertuak izango dira.
- Interbentzioa: Metodo ez farmakologikoak aztertzen ez dituzten artikulak baztertuak izango dira; lanaren helburuarekin bat egiten ez dutelako.

**Artikuluen hautaketa**

Artikuluen hautaketa egiteko, hurrenkera bat jarraitu da, eta hainbat irizpide kontuan eduki dira testuen sailkapen zehatza egiteko. Urte tartea 2010. urtetik 2021. urtera izan da, hau da, azken hamar urteetako fidagarritasun mailari eutsi zaio. Aipatutakoa, Medline (Ovid), Cinhal, Embase, Pumbed eta Cochrane liburutegian aplikatu da. Ostean, bilaketa ekuazio guztiak egiterakoan lortutako emaitza guztiak berrikusi dira, testuen baliagarritasuna neurtuz.

Bilaketa ekuazio guztiak kontuan hartuta, 1.118 emaitza lortu dira. Horietatik 347 testu errepikatuak ziren. Lehenengo berrikusketan lortutako 771 artikuluetatik, izenburua eta abstract-a pixka bat ginetik behatuz, lanaren helburuarekin bat ez datozen 506 artikulak baztertu dira. Guztiak urtearen irizpidea betetzen zuten, filtro bezala jarri zelako. Aipatzekoa da bilaketa

ekuazioetan jarritako filtro bakarria hori izan dela. Izan ere, metodo ez farmakologiko batekin ez da nabaritu informazio faltarik datu base gehienetan, hori dela eta, urtearen irizpidea finko mantendu da lehenengo momentutik. Gainera, urteen tartea murrizteko beharra egon da bilaketa ekuazio zehatz batzuekin, 2015-2020 urte bitartean jarrita. PRParen inguruan informazio nahikoa agertu da, psikoterapia eta erlaxazio tekniken inguruan ez bezala.

Ondoren, izenburua eta abstract-a sakonki irakurri ostean, zeuden 265 artikuluetatik, barneratze irizpideak betetzen dituzten eta lanaren helburuarekin bat egiten zuten 65 artikulua aukeratu dira. Azpimarratzekoa da baztertu diren 200 artikuluetatik, askok ez zutela populazioaren barne irizpidea betetzen, edo ez zutela lanaren helburuarekin erlazio zuzena edo ez zirela full text-ean aurkitu. Hala ere, baztertutako askok abstract-a berriz irakurrita, ikusi zen diseinu mota ez zela egokia eta orduan lanaren emaitzak idazteko baliogarriak ez zirela.

Lanaren emaitzei begira, lortutako azken 65 artikulua horiek, ikertutako 3 metodo ez farmakologikoetan multzokatu dira. Modu honetan, 3 metodo ez farmakologikoen inguruko artikulua kopurua berdina izateko nahian. Ostean, behin artikulua bakoitzaren baliagarritasuna aztertuta, PRParen, psikoterapiaren eta erlaxazio tekniken inguruko artikulua hoberenak hautatu dira, ondoren irakurketa kritikoa egiteko. Azkenik, 18 artikulua baztertu ziren.

Behin lanaren helburuari erantzuteko 49 artikulua full text-ean izanda, irakurketa kritikoa egin da. Irakurketa kritikoa gidoian oinarritu da; helburua eta barne eta kanpo irizpideak birpasatu dira eta testuaren kalitatea eta baliagarritasuna kontuan hartu dira, ondoren lanaren emaitzak idazteko egokienak izan zitezkeen artikulua aukeratzeko. Ondorioz, 32 artikulua deuseztatu dira, behar adina fidagarritasunik ez erakusteagatik edo irizpideak ez betetzeagatik. Hautaketa prozesu honetan, 15 artikulua aukeratu dira guztira. Amaitzeko, eskuzko bilaketei esker, 2 testu gehitu dira. (3. *Eranskina*)


Ostean, esandako pauso guzti hauek biltzen dituen fluxu diagrama idatzi da. Bertan, artikulua aukeratzeko eta baztertzeko arrazoiak azaldu dira. (4. *Eranskina*)

Lanaren emaitzak idazteko erabiliak izango diren 17 artikuluen laburpen taula egin da. Bertan testuen ezaugarriak adierazi dira; hala nola, izenburua, idazleak, argitaratze urtea, diseinua, helburua, populazioa, interbentzioen laburpena eta erdietsitako emaitzak. Hau da, lanaren emaitzetarako baliagarriak diren ideia orokorrak eta nagusiak. (5. *Eranskina*)

Bukatzeko, kategoriak sailkatzen dituen zuhaitz baten bidez, lanaren emaitzak ordenatu eta erakutsi dira. Hau da, bertan testuetatik ateratako informazioa multzokatu eta laburtu da, modu erraz batean ikusarazteko. (6. *Eranskina*)

## EMAITZAK ETA EZTABAIDA


Lanari zentzua emateko nahian, azkenik 17 artikulua hautatu dira. Horrenbestez, artikulua horiek izango dira Gradu Amaierako Lanaren emaitzak lortzeko eta helburuari erantzuna emateko erabiliko direnak. Aipatutako 17 artikulua horietatik, 13 entsegu klinikoak dira, 2 atzera begirako ikerketak, eta 2 berrikuspen sistematikoak eta meta-analisiak.



1. Irudia. Artikuluaren sailkapena diseinuaren arabera.

Artikulu hauetan zera bilatu da: xede-populazioa egunerokotasunean BGBK pairatzen duten eta antsietatea zein depresioa duten pazienteak izatea. Halaber, BGBK akutua eta ospitaleratutako pazienteak ikertzen zituzten artikulua baztertu dira. Bestalde, pazienteen batzuetan besteko adina 55-75 urte bitartekoa da.

Lortutako artikulua 12 herrialdeetan zehar egindako ikerketak dira. Horietatik 8 Europan, 3 Estatu Batuetan, 3 Asian, beste 2 Australian, eta beste 1 Hego Amerikan.



2. Irudia. Artikuluaren sailkapena herrialdeen arabera.

Gradu Amaierako Lan honetan, arnasketa arazoaren ondoriozko antsietate eta depresioaren maneia metodo ez farmakologikoen bidez aztertu da, BGBK pairatzen duten gaixoetan. Hauek PRPea, Psikoterapian eta Erlaxazio teknikan banatu dira. Esan beharra dago, metodo ez-farmakologiko hauen barnean, azpi teknika desberdinak daudela, kategoria zuhaitza sortuz. PRPren barnean ariketa aerobikoa, ariketa mota ezberdinak eta hezkuntza lantzen dira. Bestetik, psikoterapian, TCC, autogestioa eta psikohezkuntza jorratzen dira, eta azkenik, erlaxazio teknikan, berriz, arnasaldiak, meditazioa eta muskuluen erlaxazioa.

Artikuluetan gehien aztertu den teknika PRP da, alde handiagatik gainera. Bere atzean, psikoterapia, eta azkenik, erlaxazio teknikak. Metodo ez farmakologikoez paziente hauen antsietatean eta depresioan duten eragina eta eraginkortasuna neurtzeko, eskala desberdinak erabili dira (*7.Eranskina*). Hauek orokorrean interbentzioaren aurretik eta ostean pasatu dira. Antsietatea eta depresioa neurtzen dituzten eskala espezifikoak daude. Gehien erabili den eskala HADS (Hospital Anxiety and Depression Scale) da, DASS-21 (Depression Anxiety Stress Scales-21) eta BDI/BAI (Beck Anxiety and Depression Inventory) eskalekin jarraitua.

BGBK duten pazienteetan antsietatea eta depresioa hobetzeak pazienteen beste hainbat alderdietan eragin positiboa eragin ditzake. Hori dela eta, hainbatetan, kontzeptu hauek neurtzeaz gainera, bizi kalitatea, disnea, ariketarekiko tolerantzia, BGBK gaixotasunaren bilakaera eta egindako interbentzioen eraginkortasuna baloratu dira. Antsietatea eta depresioa hobetzeak bizi kalitatearen suspertzeak eragiten du; lotura zuzena baitute.

Lehen aipatu bezala, PRPren inguruko informazioa zabalagoa izan arren, artikulu bakoitza ekitatiboa egitea lortu da. Hau da, 17 artikuluetatik 7 PRPren ingurukoak dira, 5 psikoterapiari buruzkoak, eta azken 5ek erlaxazio teknikak ikertzen dituzte. Horrek esan nahi du, hautatutako artikuluetan behar beste informazio dagoela tratamendu ez farmakologiko bakoitzaren eraginkortasuna eta ikerketa maila neurtzeko.

#### Errehabilitazioa pulmonarra

PRPa BGBK gaixoen antsietatea eta depresioa murrizte aldera gehien ikertu den metodo ez farmakologikoa da. Hori gutxi ez balitz, PRPa BGBK pairatzen duten pazientearen interbentzio integralaren oinarria da, beste terapia egokietekin batera. Artikulu askotan, tratamenduaren oinarria da, nahiz eta beste metodo ez farmakologikoen eraginkortasuna ere ikertzen den. Metodo honen eraginkortasuna neurtzeko erabilitako testuak 4 entsegu kliniko, 2 atzera begirako ikerketa eta errebisio eta meta-analisi bat erabili dira.

Lehen Mailako Arretan burututako zortzi asteko PRP bat hezkuntzan eta entrenamendu fisikoan oinarritzen zen. PRP asko bi azpiatal hauetan banatzen dira. Ariketa fisikoan entrenamendu desberdinak egiten dira; hala nola, beroketa, ibiltzea, korrika, indar ariketak eta abar. Horrez gainera, arnasketa eta erlaxazio ariketak uztartzen dira. Taldeak BGBK moderatua duten pazienteetan eta BGBK aurreratua dutenetan banatzen dira, guztira 76 paziente izanik. PRP metodo honen bidez depresioan eta antsietatean onurak ikusi dira, sintomak arintzea lortzen dutelako. PRP-aren aurretik, bi taldeek HADS-D  $p < 0,39$  eta HADS-A  $p < 0,27$  puntuazioa zuten. Zortzi asteko PRP egin ostean, BGBK moderatua dutenek HADS-D  $p < 0,041$  eta HADS-A  $p < 0,004$  puntuazioa zeukaten eta BGBK aurreratua dutenek, berriz, HADS-D  $< 0,027$  eta HADS-A  $< 0,001$ . Bestetik, aipatzekoa da 2 taldeen artean ez dagoela desberdintasun esanguratsurik HADS-D  $p < 0,63$  eta HADS-A  $p = 0,91$ , puntuazioa izanik. Hau da, PRP egokia eta onuragarria da BGBK moderatua eta aurreratua duten pazienteentzat. BGBK moderatua duten pazienteen

kasuan, nahiz eta sintomatologia gutxiago eduki, sintomen aldaketa esanguratsuak ikusi dira (21).

Jarduera fisikoa eta hitzaldi didaktikoak uztartzen dituen hamabi asteko PRP batek erakutsi du, antsietatea eta depresioa arintzen laguntzen diela BGBK duten pazienteei. 125 pazienteekin egindako PRP da eta BAI ( $p < 0.0041$ ) eta BDI ( $p < 0.00016$ ) esanguratsua lortu du. Bestetik, antsietate maila gutxiagotu zen: PRParen aurretik %57,6 portzentajea izatetik %73,6 portzentajea izatera igaro zen. Depresioari dagokionez, bestalde, %80,0tik %55,2ra jaitsi zen. BGBK minimoa duten pazienteetan eskuratutako balioak dira, nahiz eta moderatuan ere gutxiagotzea antzeman zem; PRParen aurretik BAI %13,6 eta BDI %12,8, eta PRParen ostean BAI %11,2 eta BDI %3,3 (22).

PRParen barnean, jarduera fisikoa edo ariketa aerobikoa lantzeaz gainera, ariketa mota ezberdinak eskaintzen dituzten programak daude. Ildo horretan, zortzi asteko PRP batean taldeka lantzen diren saio bakoitzean indartze ariketak, erresistentzia ariketak, ariketa aerobikoak eta hezkuntza (nutrizioa, farmakologia eta abar) ematen zen. 556 pazienteek parte hartzen zuten, eta berez, euren prebalentzia DASS-depresioa %38koa, DASS-antsietatea %54koa eta DASS-estresa %25ekoa da. PRP honen bidez, onura fisiko zein psikologikoak eskuratzen dira. DASS-21 eskalan, DASS-antsietatea, DASS-depresioa eta DASS-estres puntuazioak esanguratsuak dira guztiak ( $p < 0,001$ ). Zehatzago izanik, DASS-depresioa  $>9$  duten pazienteek 5,49 puntuazioaren bidez murrizketa eduki dute,  $p < 0,001$ ; DASS-antsietatea  $<7$  duten pazienteek 3,61 puntuazioaren murrizketa  $p < 0,001$  eta DASS-estresa  $<14$  duten pazienteek 7,16 puntuazioa dela eta, ere murrizketa eduki dute  $p < 0,001$ . Hortaz, programaren moldaketa desberdina izan arren, emaitzak esanguratsuak izaten jarraitzen dute (23).

Ibilaldietan zentratutako PRP batek, ongizate biopsikologikoa lortzeko esperantzagarri den programa bat lortu da non 84 pazienteek parte hartzen dute. Ibilaldiez gainera, meditazioa eta arnasaldiak ere lantzen ziren. Horrela izanda, ebidentzian oinarritako zainketak izan litezke eta erizainak zerbitzu hori eskaini antsietatea, depresioa eta bestelako arloak hobetzeko helburuarekin. Ikerketa honetan, erantzun esanguratsuak ikusi ziren: Antsietatea PRP hasi eta 1., 2. eta 3. hilabeteen ( $p < 0,001$ ) eta depresioari dagokionez 1., 2. eta 3. hilabeteen ( $p < 0,001$ ). Horrela izanda, programa mota hau, antsietate eta depresioa pairatzen duten BGBK pazienteetan, 2 sintoma hauek murrizteko metodo ez farmakologiko esanguratsua izango litzateke. Hala ere, 3 hilabeteren ostean emaitzak ebaluatzen dituen ikerketak behar direla adierazten dute (24).

Bestetik, PRP batean ospitaleratutako (8 aste) eta lehen mailako arretako (14 aste) 303 paziente daude. Landutako arloetako batzuk eguneroko entrenamendua, nutrizioa, laguntza psikologikoa eta hezkuntza dira. Horiek medikuek, erizainek, fisioterapeutek, psikologoak eta gizarte-langileek jorratzen zituzten. Ikerketa horren arabera, PRPa egin ostean, depresioa eta antsietateari

dagokionez, aldaketa esanguratsuak ikusi ziren, sintomen intentsitatea murriztuz HADS-A eta HADS-D eskaletan ( $p < 0,001$ ). Hasieran antsietatea zeukaten pazienteen proportzioa (HADS-A  $\geq 10$ ) PRP egin ostean gutxiagotu zen, 28,7% portzentaje izatetik 13,2% izatera ( $p < 0,001$ ). Depresioaren aldaketa ere ona izan zen (HADS-D  $> 10$ ) 29,4% portzentajetik 15,8%ra ( $p < 0,001$ ). Aldaketa guzti hauek ariketa fisikoarekiko tolerantzia handiagorekin eta antsietate eta depresioan onurak ekartzearekin erlazionatuta daude. Hala ere, pazienteen osasun egoeran onurak ekartzearekin eta BGBKaren hobekuntzekin ez dago guztiz erlazionatuta; horretarako ikerketa gehiago behar direla aipatzen da (25).

PRP amaitu ostean emaitzak aztertzeaz gainera, 2 urte igaro eta gero ere pazienteen bilakaera eta PRParen eraginkortasuna neurtzen dituen ikerketa bat dago. PRP honek, aurretik esandako programen antzerako gidoia jarraitzen du, 165 pazienteekin. Ariketa aerobikoa taldeka eta hezkuntza lantzen da 8 asteetan zehar. PRP amaitu eta gero, DASS-21 eta AIR (Anxiety Inventory for Respiratory Disease) eskalek onura esanguratsuak adierazten dituzte ( $p < 0,001$ ), beraz, antsietateari eta depresioari buruz hitz egitean, BGBK duten pazienteetan murrizketak eragiten dituzte. Bestetik, lortutako emaitzen arabera, ez dirudi aldaketa esanguratsurik dagoenik 2 urte pasa eta gero, AIR y DASS-21 ( $p > 0,05$ ). Hau da, denborarekin antsietatean eta depresioan lorturiko onurak iraunkorrak direla ematen du (26).

Gainera, aleatorizatutako 11 entsegu kliniko barne hartzen dituen errebisio eta meta-analisi batek PRParen ostean aldaketa esanguratsuak erakusten zituen; bai antsietate sintometan SMD (standardized mean difference) 0,53 puntuazioarekin eta depresioan SMD, 0,70 puntuazioarekin. Beraz, PRPak onura esanguratsuak lortzen ditu, eta eraginkorra da antsietate eta depresio sintometan (27).

Lehen aipatu bezala, antsietate eta depresio sintomen hobekuntza beste alderdi batzuen hobekuntzarekin erlazionatuta dago. Haietako batzuk dira besteak beste, bizi-kalitatea, disnea eta ariketa fisikoarekiko tolerantzia. Orokorrean aipaturiko ikerketa guztietan aurrerapauso hau nabaritu izan da eta eskala hauen bidez neurtu da: ISWT (Incremental shuttle walk test) eta ESWT (Endurance shuttle walking test) ( $p < 0,001$ ), CRQ (Chronic Respiratory Disease Questionnaire) ( $p < 0,001$ ), SGRQ (St George's respiratory questionnaire) ( $p < 0,001$ ), 6MWD (Six minute walking distance) 28,9 izatetik 51,2-ra ( $p < 0,05$ ), mMRC (Modified Medical Research Council) ( $p < 0,001$ ) eta CAT (Chronic obstructive pulmonary disease assessment test) ( $p < 0,001$ ). Ikerketa bakar batean disnearen hobekuntza ez da ikusi ( $p > 0,005$ ) (21-27).

Lortutako artikuluen arabera, beraz, esan daiteke PRPari esker BGBK duten pertsonen antsietatea eta depresio sintomak arindu daitezkeela. Eragin zuzena eta positiboa du gaixoarengan, fisikoki zein psikologikoki. Gainera, aipatu bezala, sintoma hauek hobetzearekin, disnea, bizi kalitatea eta ariketarekiko tolerantzia ere hobera doaz. Dena den, ez da ikusi errehabilitazio pulmonarraren barnean lantzen diren azpi teknika bakoitzak eraginkortasun zehatzik duenik bi sintoma hauetan. Hala ere, azpimarratu beharra dago lortutako ikerketa gehienetan azpi teknika hauek berdinak direla aldakortasuna txikia izanik.



## Psikoterapia

Aztertu diren ikerketek adierazten dute, orokorrean, psikoterapia BGBK pazienteetan antsietatea eta depresioa arintzeko metodo ez farmakologiko eraginkorra dela. Izan ere, biriketako errehabilitazioarekin alderatuta, antsietatea eta depresioa neurtzen dituzten eskalen balioak (HADS, SCL-90 (Anxiety subscale of the Symptom Checklist-90), BAI, PHQ (Patient health Questionnaire)) handiagoak dira, eraginkortasun txikiagoa adieraziz. Metodo honen eraginkortasuna baloratzeko 5 entsegu kliniko hautatu dira (28-32).

Aipatzekoa da ere, lortutako artikuluetatik gehienetan erizainaren garrantzia nabarmentzen dela, bera baita psikoterapia saioak eskainiko dituen osasun profesionala (28-30). Pazienteek beraien pentsamenduak, emozioak, sentsazioak eta abarrekoak gidatzen eta kontrolatzen ikastea da helburua. Gainera, estresa arnasketan eta antsietatean lantzen da. Horretarako, MPI (Minimal Psychological Intervention) barnean guztiek TCC edo CBT (Cognitive behavioural therapy) jorratzen dute (28-32). Hala ere, TCC ematearekin batera autogestioa (28,30) edo psikohezkuntza (29,31) lantzen duten ikerketak daude. Metodo hauen eraginkortasuna, kontrol talde batekin konparatzean baloratu da (28-32).

TCCa eta psikohezkuntza lantzen dituzten ikerketei buruz hitz egitean, 66 (29) eta 31 (31) pazienterekin egindako ikerketak daude. Horietan, astero ordubeteko lau saio ematen dira (29,31). Pazienteen etxean emateko aukera dago, eta ostean, telefonoz 20 minutuko saio bat eskaintzen da, aurretik emandako guztia sendotzeko (29).

Eraginkortasunari begira, antsietatean hobekuntzak nabariak izan dira, depresioan, berriz, ez horrenbeste. Interbentzioa landu eta 1. eta 3. hilabeteen emaitzak baloratu diren ikerketa batean, HADS-A ( $p < 0,005$ ), %29,18 portzentajeko jaitsiera du eta HADS-D ( $p = 0,192$ ) (29). Bestetik interbentzio hasieran eta 6. hilabete ostean baloraturako ikerketan HADS-A ( $p < 0,005$ ) eta HADS-D ( $p = 0,644$ ) emaitzak aurkezten ditu. Gainera, izu-atakeak ez zuen emaitza esanguratsurik lortu ( $p = 0,056$ ), hala ere, izu-atake kopurua gutxiagotu zen; interbentzio taldean 18tik 0ra eta kontrol taldean 13tik 5era (31). Ikerketek ondorioztatu dute, depresioan hobekuntzarik lortu ahal izateko, interbentzio sakonago bat eta jarraipen luzeago bat egin beharko liratekeela, gehien bat psikohezkuntza atalari begira (29,31).

Horrez gain, lehen esan bezala, TCCrekin batera autogestioa lantzen duten ikerketak daude, hartutako laginak 187 eta 361 paziente izanda. Bietan, interbentzioen iraupena 10 saio dira 3 hilabeteetan zehar (28,30). Psikohezkuntza jorratzen zuten ikerketetan bezala, saioak etxean izateko aukera dago (28).

Kasu honetan, bi ikerketetan interbentzioaren eraginkortasuna 1. astean, 3. hilabetean eta 9. hilabetean aztertu ziren. Antsietatean hobekuntza handiagoa nabaritu da, nahiz eta depresioan emaitzak ere esanguratsuak izan diren. Aipatzekoa da bakarrik 9. hilabetean emaitzak eraginkorrak direla (28,30). Ikerketa baten arabera, interbentzioaren 1. astean (BDI,  $p = 0,10$ ) eta (SCL-90,  $p = 0,51$ ); 3. hilabetean (BDI,  $p = 0,10$ ) eta (SCL-90,  $p = 0,47$ ); 9. hilabetean (BDI,  $p = 0,04$ )

eta (SCL,  $p=0,003$ ) emaitza lortu ziren (28). Beste ikerketa batek erakutsi du, SCL-90 eskalaren arabera hurrengo puntuazioa eskuratu zutela: 1. astean ( $p=0,64$ ), 3. hilabetean ( $p=0,14$ ) eta 9. hilabetean ( $p=0,005$ ). Azkenik, autogestioari dagokionez 1. astean ( $p=0,08$ ), 3. hilabetean ( $p=0,04$ ), 9. hilabetean ( $p=0,02$ ); 3. hilabetetik aurrera emaitzak esanguratsuak izanik (30).

Metodo honen inguruko hainbat ikerketen arabera, paziente batzuek BGBK gaixotazunaz gain diabetes mellitus 2 edo bihotz gutxiegitasuna dituzte (30,32). Hala ere, MPIk emaitza esanguratsuak erakutsi ditu antsietate eta depresioari dagokionez, 12. hilabetera arte mantenduta: 4. hilabetean BAI ( $p<0,001$ ), PHQ-9 ( $p=0,004$ ) eta 8. eta 12. hilabetean BAI ( $p=0,006$ ) eta PHQ-9 ( $p=0,011$ ) (32).

Bestetik, bizi kalitateari dagokionez, esan beharra dago MPIk BGBKarengan inpaktu positiboagoa eta esanguratsuagoa duela, diabetes mellitus 2rekin alderatuta (30). Gainera, bihotz gutxiegitasuna duten pazienteekin erantzun berdina ikusi da. BGBK duten pazienteen osasun kalitatea hobetu zen, bihotz gutxiegitasun pazienteekin alderatuta; hala ere, ez da mantendu 12 hilabetera arte, CRQ ( $p=0,95$ ) (32). Beste ikerketa baten arabera, interbentzioaren ostean, CRQ ( $p = 0,016$ ) puntuazioa lortu zuen, baina itolarrian ( $p=0,173$ ) eta disnean ( $p=0,157$ ) emaitzak ez ziren esanguratsuak izan (29). Azkenik metodo honen inguruan falta diren ikerketen arabera, BGBKn IBPQ (Interpretation of Breathing Problems Questionnaire) hobekuntzak nabariak izan dira SGRQ 7,94 ( $p = 0,004$ ) (28) eta IBPQ ( $p= 0,001$ ) (31).

Laburbilduz, erizainak eskainitako MPI interbentzioari esker, antsietatea eta bizi kalitatea nabarmen hobetu dira. Depresioan, berriz, ez da aldaketa hain esanguratsua ikusi. Edozelan ere, ikerketen arabera, MPIk funtzio terapeutiko nahiz prebentiboa eduki dezake. Hori dela eta, lehen mailako arretan jorratzekotan eta ohiko PRP-aren barnean eman ezker, BGBK duten pazienteen osasun arreta nabarmen hobetuko liteke (28-32).

### Erlaxazio teknikak

Gutxi izan dira erlaxazio teknikak BGBK gaixoetan lantzen duten ikerketek, metodo honen eraginkortasuna antsietate eta depresioan aztertzeko (33-37). Lortutako artikuluen arabera, bik MBCT edo MBBT lantzen dute (33,34) eta beste hirurek, aldiz, arnasaldiak, muskuluen erlaxazioa eta bestelako teknikak (35-37). Teknika honi buruzko artikulua gutxi izateaz gain, orokorrean, eraginkortasun txikia dute aurreko bi metodo ez farmakologikoen aldean (33,34). Gainera, ikerketa batzuetan erlaxazio terapia PRParen barnean dago eta metodo lagungarri bezala hartzen da (33,36). Aipatzeko da, ikerketa guztiek metodo hauen eraginkortasuna kontrol talde batekin konparatzean baloratu dela eta bere baliotasuna neurtzeko 4 entsegu kliniko eta errebisio eta meta-analisi bat erabili da (33-37).

MBCT eta MBBT lantzen duten ikerketen arabera, erlaxazioan, antsietate nahiz depresio sintomak gutxiagotzean eta arnasketan zentratzen dira. 86 eta 84 pazienteekin egindako ikerketak dira; non 8 astetan zehar aipatutako metodoa lantzen da (33,34). Gainera, ikerketa

batean dei telefonikoak, meditazioa eta hezkuntzazko ariketa kognitiboak jasotzen dira (33). Dena den, orokorrean ez da emaitza esanguratsurik aurkitu antsietate eta depresio sintometan.

Interbentzioaren ostean, 3. eta 6. hilabeteen eskalak neurtzen ziren ikerketa batean, antsietatean baino ez ziren antzeman aldaketa iraunkorrak: HADS-A 0,18-1,06 batazbestekoa ( $p=0,010$ ) (33). Beste ikerketa baten arabera, neurtutako alderdi guztiak ez ziren esanguratsuak izan, ( $p >0,05$ ) eta eskalen arteko desberdintasuna interbentzio taldea eta kontrol taldean oso baxuak ziren, puntu batekoa edo gutxiagoko aldearekin (34).

Bestalde, ikerketek diote, emaitza esanguratsurik ez izatearen arrazoiak bi izan daitezkeela: lagina txikiegia izatea, eta partaide guztiak gaitz psikologikoak ez izatea. Horrez gain, kalitate handiagoko ikerketak behar direla esaten dute. Honengatik, zera ondorioztatu daiteke: BGBK pazienteen antsietate eta depresioa arintzeari dagokionez, MBCTa eta MBBTa eraginkortasun gutxiko aukera terapeutikoak dira, eta ikerketa gehiago behar dute (33,34).

Lehen aipatu bezala, erlaxazio tekniken inguruan lortutako ikerketa guztiak ez dute MBCTa edo MBBTa lantzen. Badaude arnasaldietan, muskuluen erlaxazioan, meditazioan eta emozio eta sentimenduetan zentratzen direnak. Hauek 45 eta 38 pazienterekin egindako ikerketak dira (35,36). Ikerketa batean, aipatutako arlo hauek audio baten bidez lantzen da (35), eta beste ikerketan, berriz, VIT (irudi bisualen teknikaren) bidez (36).

Bi ikerketak esanguratsuak dira, biek beraien helburua lortu baitute. Audioa jorratzen duten ikerketen kasuan, aldaketa esanguratsuak eman dira arnas sisteman, kardiakoan ( $p = 0,006$ ) eta antsietatean, STAI-Y1/ STAI-Y2 (State Trait Anxiety Inventory-State Form/ State Trait Anxiety Inventory-Trait Form); 26,05 puntuazioa ( $p = 0,013$ ) (35). Beste ikerketan, berriz, nahiz eta beste eskalen bidez emaitzak neurtu, esanguratsuak dira antsietate eta depresioan DASS-21, ( $p<0,0001$ ) eta HADS, ( $p<0,0001$ ). Aipatzekoa da VIT, PRT (erlaxazio teknika progresiboekin) konparatzea dela ikerketaren helburua, eta VIT estatistikoki eta klinikoki esanguratsuagoa dela baieztatu da (36).

Azkenik, berrikuspen eta meta-analisi batean, aleatorizatutako hainbat entsegu kliniko barne hartzen dituen, hainbat metodo desberdin lantzen dira erlaxazio tekniken inguruan (muskuluen erlaxazioa, arnas teknikak, yoga, tai chi, arnas bioretroalimentazioa eta abar). Emaitzak FEV1 (Forced expiratory volumen in the first second) eskalan esanguratsuak dira, baita antsietate eta depresio balioetan ere, hainbat eskala desberdinen bidez ebaluatu zirenak ( $p<0,05$ ) (37).

Erlaxazio tekniken eraginkortasuna ebaluatzen duten ikerketek, antsietate eta depresioa baloratzeaz gainera, disnea eta BGBK gaixotasunaren progresioa baloratzen dute. Kasu honetan, ikerketek bizi kalitatea ez dute neurtzen. Hala ere, orokorrean antsietatea eta depresioa hobetzen ez direnez, bizi kalitatean ez luke izango inolako eraginik. Gainera, disnean eta BGBKn ez da aldaketarik ikusi: CAT ( $p = 0,061$ ) (33), 6MWT (6-min walk test) ( $p = 0,7041$ ) (36), VAS (Visual Analogue Scale) ( $p=0,81$ ) (34).

Ondorioz, erlaxazio tekniken inguruan lortutako artikuluen arabera, orokorrean ez ditu onura psikologikorik eskaintzen ezta arnas funtzioetan ere (33)(34)(36). Izan ere, antsietatean eta depresioan esanguratsuak diren ikerketak daude, baina emandako metodologia nahiko desberdina da (35,37). Beraz, erlaxazio tekniken inguruan ikerketa gehiago eta kalitate handiagokoak ere behar dira. Hiru metodo ez farmakologikoen artean, arrakasta gutxien izan duen metodoa da (33-37).

## ONDORIOAK

Asko dira BGBK dela eta antsietatea eta depresioa pairatzen duten pazienteak. BGBKari dagokionez, ezinbestekoa da alderdi klinikoa lantzeaz gainera, psikologikoa ere aintzat hartzea. Gainera, gaitz psikologiko hauek tratatuz gero, pazientearen bizi kalitatea zein BGBKren sintomak arindu daitezke.

Antsietate eta depresio sintomak arintzeko, tratamendu farmakologikoez aparte, ez farmakologikoen eraginkortasuna ikusi da. Horiek PRP, psikoterapia eta erlaxazio teknikak dira.

Hiru metodoen artean, PRP da orain arte gehien ikertu dena. Gainera, BGBK pazienteen antsietatea eta depresioa murrizteari dagokionez, eraginkortasun handiena erakutsi duen metodoa da, areago, bi sintomak hobetzen lortzen duen teknika bakarra da. Bestalde, PRPren inguruko ikerketetan landutako azpi metodorik ohikoenak ariketa aerobikoa eta hezkuntza dira. Ikerketa askoren oinarria da, eta beste metodo ez farmakologikoen eraginkortasuna baloratzen den arren, PRPren presentzia nabaria da. Gainera, azpimarratzekoa da 3 metodo ez farmakologikoetatik alderdi psikologikoak lantzen ez dituen interbentzioa izanda ere, gaitz psikologikoetan eraginkorra dela.

PRP ez bezala, psikoterapia metodoa ez da hainbeste ikertu urteetan zehar. Lortutako ikerketen arabera, antsietatean eraginkortasuna ikusi bada ere, depresioan, aldiz, ez da hainbeste aldaketa egon. Horrez gain, orokorrean, BGBK pazienteentzat metodo eraginkorra izan daitekeela adierazten dute. Hala ere, barneratzeko modurik egokiena PRPan azpi teknika moduan izango litzateke. Bestetik, psikoterapian gehien erabilitako azpi teknikak TCC eta psikohezkuntza dira. Hainbatetan, metodo honen maneiua erizainaren zeregina dela aipatzen dute ikerketek.

Erlaxazio teknikei buruz hitz egitean, antsietate eta depresioan eragin gutxien duen teknika da. Hainbat artikuluk ez dute eraginkortasunik ikusi antsietate ezta depresioan ere. Gainera, eskuratutako artikuluetan aldakortasun handia dago azpi teknikei dagokienez. Badaude MBCTa edo MBBTa lantzen dituztenak, baina orokorrean beste artikuluek nahiz eta arnasaldiak, muskulu erlaxazioak eta abarreko teknikak landu, beraien artean desberdintasuna dago. Dena den, erlaxazio tekniken inguruan ikerketa gehiago eta kalitate handiagokoak behar dira.

Beraz, esan daiteke lortutako artikuluen arabera, PRP metodoa egokiena dela BGBK duten pertsonen antsietatearen eta depresioaren sintomak arintzeko. Eragin zuzena eta positiboa dute gaixoarengan, fisikoki zein psikologikoki. Depresio eta antsietate sintomak hobetzearekin batera, pazienteen bizi kalitatea, disnea eta ariketarekiko tolerantzia ere hobera doaz. Bestetik, lortutako ikerketak bateratuta, esan daiteke psikoterapia jorratzea ondo legokeela; beti ere PRPren barnean egonda. Metodo hau bakarrik erabiltzekotan ez dago ebidentzia nahikorik bi sintometan metodo ez farmakologiko hau eraginkorra dela esateko.

Orokorrean ikusi da lan hau burutzeak merezi izan duela, erizainak une honetan dituen arreta eta eginkizuna zein den zehazteko baliagarria izan baita. PRP, psikoterapia edo erlaxazio teknikak metodo ez farmakologikoak izanik, BGBK pairatzen duten pazienteei eskaini diezaiokeen osasun profesionalen artean, erizaina osatuena izan daiteke. Hori dela eta, erizainaren ekarpena funtsezkoa denez, ikerketetan metodo ez farmakologiko hauek jorratzean, ondo legoke erizainaren garrantzia azpimarratzea.

## MUGAK/OZTOPOAK

Literaturaren errebisio hau egin ostean eta jasotako emaitzetan eta eztabaidan oinarrituz, esan daiteke muga desberdinak dituela. Metodo ez farmakologiko batzuen inguruan, beste batzuetan baino informazio falta handiagoa somatu da. Orokorrean PRParen inguruan ez da informazio faltarik egon. Erlaxazio teknikei buruzko ikerketa gehiago behar da, gehienbat teknika homogeenekin egindako artikulua eta kalitate handiagokoak. Informazioa hain eskasa izan da, errebisio eta meta-analisi bat erabili dela. Psikoterapiari dagokionez, informazio gehiago lortu den arren, ikerketa gehiago behar da ere.

